

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAN HONDAKINAK KUDEATZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI KONTSULTA

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Aurrekoa betetze aldera, eta aldaketa egin aurretik, lehenago aipatu den ordenantza aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Ekimen honen xedea da hondakinak kudeatzeko indarrean dagoen ordenantza egokitzea aplikagarria den legeriatik eratorritako aginduetara. 7/2022 Legeak, apirilaren 8koak, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzekoak (HLKEZL, aurrerantzean), eta 14/2018 Foru Legeak, ekainaren 18koak, Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzkoak (14/2018 FL, aurrerantzean), birziklagarriak diren hondakinak jatorrian bereizteko gutxieneko portzentaje batzuk lortzearen derrigortasuna ezartzen dute, jatorrian bereiztea ezinbesteko baldintza baita era berean araudian ezarrita dauden birziklapen- eta berrerabilpen-xedeak lortzeko.

-HLKEZL legeak, 26.1 artikuluan, 2022. urterako, hau ezartzen du: *“Etxeko eta merkataritzako hondakinetan, paper, metal, beira, plastiko, bio-hondakin edo beste frakzio birziklagarri batzuetatik jasotako pisuaren % 50, gutxienez, berrerabiltzeko prestatzea eta birziklatzea”.*

Portzentaje hori % 65era igoko da pisuan 2035erako.

-Modu osagarrian, 14/2018 FLren 20. artikuluan hau jasotzen da: *“Etxeko eta merkataritzako hondakinen materia organikoaren gaikako bilketan helburu hauek ezarri dira konposta egiteko, bereziki, edo, hala badagokio, biometanizatorako erabiltzeko:*

- a) 2020rako, guztizko pisuaren % 20.*
- b) 2027rako, guztizko pisuaren % 70.”.*

-HLKEZL legearen 11. artikulua ezartzen du tokiko eskumeneko hondakinak kudeatzeko kostuen kasuan, 2025eko apirilerako, toki-entitateek tasa bat ezarriko dutela edo, hala badagokio, ondare-prestazio publiko ez-tributario bat, espezifikoa, bereizia eta ez-defizitarioa. Tasa edo prestazio horrek aukera eman beharko du sortutako hondakinen araberako ordainketa-sistemak ezartzeko, eta hondakinak biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko eragiketen kostu erreala –zuzenekoa edo zeharkakoa– islatu beharko du, kostuaren barruan sartuko direlarik eragiketa horien zaintza, zabortegiak itxi ondorengo mantentzea eta zaintza, kontzientziazio- eta komunikazio-kanpainak, eta ekoizlearen erantzukizun hedatua aplikatzearen, materialen salmentaren eta energiaren ondoriozko diru-sarrerak.

Helburu horiek lortzeko mekanismo moduan, araudiak aukera hauek proposatzen ditu:

- HLKEZL legeak, 25.2 artikuluan, hau ezartzen du: “[...] biltzeko toki-entitateek ezartzen dituzten ereduaren artean, bilketa-eredu efizienteenak lehenetsi beharko dira, hala nola atez atekoa edo antzeko bilketa-ratioak bermatzen dituzten edukiontzi itxi edo adimendunak erabiltzea”.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/851 Zuzentarauak, hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaria aldarazten duenak, ezartzen du bere 15. zenbakiko Kontuan hartuzkoan, 2008/98/EE Zuzentarian ezarrita dauden helburuak lortzen laguntzeko, estatu kideek tresna ekonomikoetara eta beste neurri batzuetara jo behar dutela pizgarriak emateko hondakinen hierarkia aplikatzeko. Zuzentaria horrek berariaz jasotako tresna eta neurrietako batzuk hondakinak sortzeagatiko ordainketa-sistemak dira («pay-as-you-throw»), hondakinak ekoizten dituztenei tasak ezarriko dizkietenak, sortutako hondakinen benetako kantitatearen arabera, eta pizgarriak emango dituztenak hondakin birziklagarriak jatorrian bereizteko eta hondakin nahasiak gutxitzeko; eta bai kontzientziazio publikorako kanpainak ere, bereziki, gaikako bilketari buruz, hondakinak prebenitzeari buruz eta zabor-isurketak gutxitzeari buruz, eta kontu eta alderdi horiek hezkuntzan eta prestakuntzan sartzea.
- Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Planak, 2023an egindako berrikuspenean, kontuan hartu du IMk egindako ekarpena eta era berean barne hartzen du efizientzia handiko sistemak lehenestea, berariaz adierazita atez atekoa eta edukiontzi adimendunen eta itxien sistema (2. Eranskineko 2. taula, A.RS.01.01.01 ekintza), HLKEZL legeari eta Hondakinei buruzko Foru Legeak gaikako bilketarako ezarritako helburuei dagokienez.

Era berean, Planak barne hartzen du gobernantza-printzipio moduan 14/2018 Foru Legean fiskalitate-alderdiak sartu beharra, ekonomikoki zigortzeko hondakinak sortzearen arabera, “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa aplikatuta, eta ekintza moduan barne hartzen du sortzeagatiko ordainketa-sistematarantz aurrera egitea (A.PR.01.20.33 eta A.R.03.28.33). Nafarroako Hondakinen Planean 2023an egin den berrikuspenean sortzeagatik ordaintzean (PAYT) eta/edo ezagutza bidezko sorkuntzan (KAYT) aurrera egitearen alde egiten jarraitzen da, hondakinak sortzean zergadunari pizgarria kentzeko xedearekin.

Hondakinak gaika bereizteko helburuak betetzea lortzeko xedearekin, eta araudiak ezarritako gomendioei jarraituta, IMk **lruñerriko hiri-hondakinen bilketa-sistemaren bilakaera** hasi du, hartara, landa-eremua eta hiri-eremua desberdinduta, arazo desberdinak dituztelako, eta bai industrialdeak ere, oso espezifikoak den kasuistika baitute.

Aldaketa hauek hondakinak kudeatzea arautzeko ordenantzan jaso beharko dira, eta bilketaren alderdi hauei eragingo diete:

- **Hondakinen bilketa-sistema industrialdeetan.**
- **Hondakinen bilketa-sistema landa-eremuan.**
- **Edukiontziak itxeko sistema hiri-eremuan.**
- **Bide-garbiketako hondakinen bilketa-sistema.**

Horrenbestez, araudia egokitzea eta betetzea lortu nahi da, haiek garatzea, hondakinak kudeatzearen gaineko erregulazioa indarreko araudira egokitzea eta inguruneari hobeki eusten laguntzea.

b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

HLKEZL legeak ordenantzetara bidaltzen du, hondakinak emateko sistema mugatzeko. Hau da, lege horrek xedeak baino ez ditu mugatzen, eta toki-entitateak gaitzen ditu, ordenantzen bidez (araudi-zehaztasunaren azken maila), haiek mugatzeko eta erabakitzeko bitartekoak.

Hondakinak kudeatzeko gaian, ingurumenaren arloko Estatuko araudi horrek ezarri du toki-entitateek helburu batzuk bete behar izatea hondakinak jatorrian bereiztearen alorrean, eta, era berean, utzi du toki-entitate horiek izatea hori lortzeko moduak, bitartekoak, mugatu eta erabakiko dituztenak. Bitarteko horiek dagozkien toki-ordenantzetan agertu behar dute eta zehaztu behar dira.

Sartu nahi diren alderdiek berekin dakarte aldaketa egitea zerbitzua ematean, eta alderdi horiek zerbitzua arautzeko ordenantza aldatzearen bidez jaso behar dira, bilketa-sistemak benetan sartu aurretik.

Gainera, hondakinak kudeatzearen gaineko erregulazioa indarreko araudira egokitu nahi da, alderdi desberdinak kontuan hartuta, prebentzio-planak nabarmenduta, definizioak, zehapen-esparrua...

c) Arauaren helburuak.

- **Hondakinen bilketa-sistema industrialdeetan (atez atekoa eta eskaeraren araberakoa)**

Une honetan, IMren esparruko industrialdeetan, paperaren eta gainerakoen frakzioetako hondakinak baino ezin dira bereizi kalean dauden edukiontzia baliatuta. Industriaren beraren jardueraren ondorioz sortzen ez diren frakzio guztietako hondakinak gaika bereiztea errazteko, eta industrialdeetan hondakinak botata uzteak berekin dakartzan arazoak ekiditeko, IMk atez ateko bilketa-sistema sartuko du industrialdeetan. Sistema horretan oinarrituta, aurreikusten da (i) enpresek frakzio guztietarako edukiontzia/ontzia edukiko dituztela beren instalazioen barnealdean, eta IMk aurreikusitako aldizkakotasun baten arabera bilduko direla; (ii) sortzeagatik ordaintzearen printzipioaren arabera fakturatuko zaiela enpresei; eta (iii) kaleko edukiontzia kendu egingo direla.

- **Hondakinen bilketa-sistema landa-eremuan (0 km gai organikoetan)**

Landa-eremuaren morfologia bereziak beharrezko egiten du hondakinak biltzeko sistemaren bereiztasunak sartu behar izatea, alde batetik, herritarrek hondakinak botatzea erraztuko dutenak, eta, bestetik, IMren zerbitzuak hondakinen bilketa eraginkorra gauzatzeko bidea emango dutenak. Hartara, landa-eremuan ezaugarri hauek izango dituen bilketa-kudeaketa bat aurreikusten da:

- Gai organikoak etxeko eta auzoko konpost-ontzien bidez kudeatuko dira, eta ez edukiontzien bidez. Hori horrela eginda bermatuko da (i) landa-eremuetan bizi diren herritar guztiek sarbidea izatea hondakinak bereiz botatzeko sistema batera, eta (ii) IMk baliabideen kudeaketa eraginkorra egitea, urrun eta sakabanatuta dauden herrietan biltzea gutxitzearen bidez, horrek berekin baitakar kostuak eta ingurumen-kutsadura murriztea.
- Inauste-hondakinak hondakin horiek pilatu eta birrintzeko guneen bidez kudeatuko dira, eta herri bakoitzean egongo dira gune horiek. Hala, distantzia luzeko bilketa-bidaia gutxitzea lortuko da eta, horrenbestez, horrek berekin dakartzan kostuak eta ingurumen-kutsadura gutxituko dira.

▪ **Edukiontziax ixteko sistema hiri-eremuan (ESKS 2.0)**

Gai organikoak jatorrian bereiztearen emaitzak hobetzea lortzeko, IMk edukiontzi itxi eta adimendunen sistema bat abiarazi zuen 2021ean, eta sistema horrek berekin dakar (i) gainerakoen frakzioarako eta gai organikoetarako edukiontziak ixtea, eta (ii) gainerakoen frakzioarako eta gai organikoetarako edukiontziak txartel magnetiko baten edo mugikorrerako aplikazio baten bidez irekitzeko sistema bat ezartzea. Sistema berri hori abiarazteak ahalbidetu du gai organikoak jatorrian bereiztearen emaitzak nabarmen hobetzea, sistema martxan dagoen tokietan hondakin horien % 40 bereiztera iritsita 2023ko abenduan.

Legeak finkatzen dituen bereizte-helburuak betetzean jarraitu eta aurrera egiteko helburuarekin, IMk aldaketa hauek egingo ditu, sortzailearen identifikazioa duen bilketa-sistema bat eta horri lotutako teknologia ezartzeko helburuarekin, nagusiki, hauetarako bidea emateko:

- Sortzeagatiko eta/edo parte hartzeagatiko ordaintzerantz jotzen duten sistemak ezartzea, jatorrian gaika bereiztea eta hondakinak prebenitzea sustatzen dutenak.
- Zaintzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko ahalmenak gauzatzean, herritarrek hondakinak bereizteko duten betebeharra betetzen dutela ziurtatzeko ekintzak egitea.
- Informazio-ekintza segmentatuak egitea, mezu argiak, ulergarriak eta sortzaile bakoitzaren joakerara egokituak emateko xedearekin, hartara, hondakinak jatorrian bereiztea hobetzeko helburua lortzeko.
- Zerbitzuaren eta hari lotutako adierazlearen kontrola egitea, erabakiak hartzea eta egin litezkeen optimizazioak ahalbidetzen dutenena, hondakin-bilketaren efizientzia maximizatze aldera.

Ordenantza puntu honetan aldatzearen helburua da segurtasun juridikoa ematea dagozkien zerbitzuen kudeaketaren garapenean, dagoen kasuistika guztia bilketa-sisteman islatzearen bidez sortzailearen identifikazioarekin eta hari lotutako teknologian. Segurtasun juridikoa ematea zerbitzuaren erabiltzaileei lotutako parte-hartze datuen tratamenduari, hari dagozkion alderdi guztiak zehaztu ahal izateko tresna moduan balio izanda.

▪ **Bide-garbiketako hondakinen bilketa-sistema**

Bide-garbiketako zerbitzuak IM eratzten duten udalek egiten dituzte, baina lan horietan sortzen diren hondakin batzuk IMren zerbitzuek biltzen dituzte. Hondakinak jatorrian bereizteari buruzko araudi berriarekin beharrezko egiten da erregularizatzea nola bil ditzakeen IMk hondakin horiek, bereiz boteak izateko derrigortasuna ezarrita eta eskuzko ekorketatik eta ekorketa mekanikotik datozenak desberdinduta.

Lortu nahi diren helburuak hauek dira:

- Eskuzko ekorketatik datozen hondakinak gaika botatzea bide publikoan dauden edukiontzietan.
- Ekorketa mekanikotik datozen hondakinak ez sartzea etxeko hondakinak biltzeko zirkuituan.

Era berean, hondakinak kudeatzearen gaineko erregulazioa indarreko araudira egokitzea.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Ez dira kontuan hartzen egon litezkeen bestelako aukerak, erregulatzailerak edo ez-erregulatzailerak, azaldutako arazoak konpontzeko eta aipatutako beharrei erantzuteko, aintzakotzat hartuta eraginkortasuneko eta aplikazio uniformearekin eta eraginkorra ziurtatzen duen segurtasun juridikoko arrazoiak.

Ordenantza batean agertzeko beharrik berekin dakarren arauzko ahalmenaren bidez egin behar da toki-erakundeek gai edo arlo hau arautzeko beharrezkoa den garapena; izan ere, herritarrekiko harremanak arautzea baita asmoa, horrenbestez, pertsonen aniztasun mugagabea izanda hartzaileak eta geroko eta segidako aplikazioak egiteko modukoa izanda.

Herri-kontsultaren hartzaileak:

- Iruñerriko herritar guztiak.
- Ostalaritzako elkarteak (Asociación Hostelera Navarra eta ANAPEH).
- Merkatarien elkarteak (Casco Viejo, Ensanche, etab.).
- Kontsumitzaileen elkarteak.
- Industrialdeetako administratzaileen eta enpresen elkarteak.
- Auzotarren elkarteak.
- Etxebizitzaren sustatzaileak/eraikitzaileak.
- Udalak.
- Nafarroako Gobernuak.